



GOIBURUA: LA SALLE GARA

1.- GOIBURUAREN JUSTIFIKAZIOA

Ikasturte honetan, gure salletar historiako data esanguratsu bat ekarriko dugu gogora: 1719ko apirilaren 7an, Salleko Joan Bautista hil zen Rouenen, San Yon etxean. Beraz, 300 urte igaro dira Aitarekin elkartu zenetik eta bere bizia, ordura arte bizi izan zuen modu berean, haren eskuetan utzi zuenetik: “Nire bizitzan, Jainkoaren borondatea gurtzen dut gauza guztietan.”

Une hura ez dugu gogoratu nahi atzera begiratu nahi duen eta urrutiko iragan horretan gelditu nahi duen ospakizun baten moduan, ahanzturan edo iraganaren malenkonian murgilduta. Gure oroitzapenak, aitzitik, bizitzako une itzela izan nahi du, arnasa emango diguna eta gizakion izaera eta bizimodua bultzatuko dituen, Jesusen jarraitzaile garen aldetik eta Salleko Joan Bautistaren irudiaren bitartez eta, aurrerago, 300 urte hauetan Anaien eta salletarren bitartez Espiritutik jasotako estilo karismatikoa dugun aldetik.

Horregatik, 300 urte hauek ospatzen ditugunean zer nabarmendu behar dugun galdetu behar diogu gure buruari, gure hezkuntza-obren eta gizarte-heziketako obren nahiz gure salletar komunitateen eta taldeen kanpoko eremua zainduko duen begirada izanik, baina, bereziki gure barneko begirada sendotuko duen ikuspegitik, gure salletar sustraiak kontuan hartuz eta salletar sentimendu horren errera joz: “La Salle gara.”

Hasteko, 300 urtez hitz egitea **leialtasunaz hitz egitea da**. Denboran iraun duen eta, gorabehera eta zailtasun ugari gaindituz, bere espirituari (haur eta gazteen hezkuntza gizatiarra eta kristaua, pobreena bereziki) leial eutsi dion proiektu batez hitz egitea; proiektu horri sendotasuna eta egiazkotasuna eman dizkion komunitate baten ahaleginari esker gertatu da hori, proiektua etengabe berrituz, sortzaile bihurtzen den leialtasun hori lortzeko asmoarekin. Izan ere, proiektuari eta proiektuarekiko leialtasunari eustea ez da proiektua diseinatu zuena hitzez hitz errepikatzea, baizik eta “leialtasunean etengabe sortzea”, hasitakoa denboran iraunaraziz, jaio zen eremu txikiaren mugak gaindituz eta etorkizunerantz proiektatuz, haurrentzat eta gazteentzat nahiz giza komunitateentzat aukera berriak eskaintzeko.

Esan dezakegu salletar proiektuaren euskarri den “**komunitate-zaporearen**” edo “**senidetasun-zaporearen**” 300 urte ospatzen ditugula. Salleko Joan Bautistak pentsatu zuen, bere garaiko eskola eraginkorra izan zedin, beren bizitzak eskolara soilik eskainiko zituzten gizon sagaratzat osatutako komunitate batek bultzatu behar zuela. Urtea askoan, Anaien komunitateak (hasiera batean) eman dio bizia eta sendotasuna proiektuari. Ondoren, Anaiak eta sekularrek osatu dute salletar komunitatea, eta garaien araberako beharrei erantzunez eratu dute proiektua.

Gaur, 300 urteren ondoren ospatzen dugun festak komunitatean lan egiten jarraitzeko eta komunitate sendoak, sortzaileak eta berritzaileak sortzeko dei egiten digu, komunitate horiek



proiektuaren protagonista eta bultzatzaile izan daitezten eta indarra eta jarraipena emango dioten gaur egungo izaera berritzailea ematen segi dezaten.

Beraz, ospakizun honekin, proiektuaren euskarri den komunitatean sinesten jarraituko dugu; komunitate hori, proiektuaren euskarri izateaz gain, unean uneko gizartean kalitatezko komunitate-zerbitzu bat emateko xedez beren bitzita misioari eskaini dioten pertsonen eta gure barrutiko, eskualdeko eta Institutuko edozein tokitan misioaren hartzaile diren pertsonen euskarri ere bada.

Hirurehun urtek **konpromiso eskuzabala** hartzen dute barnean, Anaien eta salletarren konpromisoa, Salletar Proiektuari bizirik eusteko hartutakoa. Benetako konpromiso horri esker, salletar Institutua desagertzeko arriskua ere ekarri zuten gorabehera asko gainditzeko gai izan ziren, zailtasunak zailtasun, Komunitatearen indarraren bidez edo Jainkoarengandik dohain gisa jasotako salletar bokazioari erantzuteko konpromisoarekiko leialtasun pertsonalaren lekukotasunaren bidez.

Gure aurrekoek erakutsi digute, proiektu orok aurrera jarraitzeko eta proiektu oro behar bezala dinamizatzeko, haren alde bizia emateko berariazko borondatea beharrezkoa dela; salletar proiektua garaian garaiko egoerara egokitzeko pertsona buruargiak behar direla, beren bizitzetan proiektu baliotsu horren aldeko inplikazioa eta konpromisoa hartuko duten pertsonak.

300 urte hauetan, salletar proiektuaren **adierazpena aldatzen joan da, eta biziz eta sormenez bete da**. Ez da lehenengo Anaien lumatik eta borondatetik, haien ziurtasunetik eta konpromisotik jaiotako elementu monolitikoa izan; garaien arabera egokitzen jakin du, garai bakoitzean beren aztarna utzi duten hezitzaileei esker.

XVIII. mendeko modernitatearen oinordeko da proiektua, bere oinarriak garai bakoitzeko haurren eta gazteen premien arabera aldatzen jakin duena.

Beraz, **berrikuntzaz, sormenez edo pertsonari eta horren premiei** arreta eskaintzeaz hitz egin dezakegu, hezitzaileen formazioari esker pertsonen barnean lokartutako edo giltzapetutako gaitasunak ateratzeaz. 300 urteko ibilbide luze eta emankorra izan da, ibilbide mingarria eta ñabardura ugariak, eta gaur egun dastatzen eta birsortzen jarraitzen dugu.

Eta, jakina, Salletar Proiektua **leial izan zaio bere hasierako iturriari: Jesusen Ebanjelioari**. Gizakion alde gizatiarra eta kristaua bateratzeko gune gisa pentsatu zen eskola, senidetu eta eskutik helduta joateko eta elkarri indarra emateko. **Ebanjelizazioa** gune eta erreferentzia nagusi izango zen toki gisa.

Jainkoa presente egon da beti, eta egunaren hasieratik arreta eskaintzen zaio presentzia horri. Jesus eta Ebanjelioa izan dira modernitatearen, postmodernitatearen, gizarte likidoaren eta etorkizunaren aurrean irekitzen ziren ateen gontzak; formazioaren eta katekesiaren bidez, Ebanjelioaren indarra (adierazpena eta barneratzea) zabaldu da eta errealitate egin da salletar eskolan.



Modu berean, La Salle garen guztiok, hots, Anaiak, asoziatuak, salletarrak (irakasleak, hezitzaileak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, familiak, ikasleak...), izateko eta egiteko modu horren ospakizunaren barnean sentitzen gara, eta senidetasunez jokatzera bultzatzen gaitu, bestearekin konpromisoa hartzera, premia gehien duenarekin, batez ere; bizitzako Jainkoarekin bat egiteko deia egiten digu, dei horien aurrean jarrera irekia izatera, eta itxaropena marrazten duen eta guztiontzat mundu hobe, Jesusek Jainkoaren Erreinu deitu zuen hori, lortu nahi duen salletar historia honen eraikitzaile sentiarazten gaitu.

Historia eta familia honetako kide garen guztiok iragan horren, orainaren eta elkarrekin eraiki dezakegun etorkizunaren **parte eta protagonista** sentitzen gara.

Alde horretatik, ikasturte honetan hainbat ospakizun izango ditugu, besteak beste. RELEMeko I. SHMA, bai eta beste batzuk ere, eta 2019. urtea **salletar bokazioen urte** izendatu da Institutu osoan. Salletar Proiektuan parte hartzen dugun guztiok Ebanjelioaren zati txiki hori berariazko karisma batetik lantzeko deituak izan gara, eta horretaz jabetu behar dugu. Deituak izan garelako sentitzen dugunetik, dei horren indar guztia salletar bokazioa sendotzera zuzentzen dugu bai sekularrek bai Anaiak, aberastasun hori konpromiso bateratu batean partekatzeko.

Beraz, gure bokazioaren aberastasunean sakontzeari arreta berezia eskainiko diogu, eta askotariko bokazioak hartuko ditugu kontuan, bereziki, salletarrak; ezagutu egingo ditugu, misioari erantzuteko dauden hainbat modu ikusteko eta Jainkoak bizitza bokazio gisa bizitzeko eta gure hezkuntza- eta gizarte-erakundearen barnean bokazio-kultura garatzeko egiten duen deiari erantzun pertsonal hobe emateko baliabideak eskaintzeko.

Gaur, atzo bezala, salletar eskola 1680. urtean Salleko Joan Bautistak sortu zuen lehen proiektu haren jarraitzailea da; Salleko Joan Bautistak bizitza eskaini zion proiektu horri, 1719an hil zen arte. Indar guztia jarri zuen heziketa gizatiarra eta kristaua eskaintzeko proiektu honen alde, eta **haren denbora merezi izan zuen eta gaur egungo gizartean ere gure denbora merezi du**, 300 urte geroago.

Horregatik, Salleko Joan Bautista gure fundatzailea eta historia emankor eta aktibo hau marrazteko bizitza eskaini zuten hainbeste Anaia eta salletar erreferentziatzat hartuta, gure barne-barnetik konpromisoa hartzen dugu haiekin batera ontzi hau behar bezala gidatzeko, Jainkoak eramaten gaituen bidetik eta pertsona askoren onurarako. Hala, uste osoz eta irmotasunez esan dezakegu honako hau sentitzen dugula: **“La Salle gara.”**

Gure goiburuarekin batera, kontuan izan behar dugu baita ere Institutuak honako ospakizun hau egitean munduko salletar guztioi egiten digun proposamena; goiburuan jasota dago: “De La Salle: bihotz bat, konpromiso bat, bizitza bat.” Institutuko prestakuntza-batzordearen hitzetan:

Gaurko errealitate gordinenera eramaten gaitu, Salleko Joan Bautistaren irudiak eta obrak duela 300 urtetik biltzen duena jasotzen baitu:



- **Bihotz bat:** Salletar Proiektuak bizirik jarraitzen du bihotzean, gertaeren erritmorra taupada eginez; gaur egungo taupadak “bihotza duen” proiektu bat gordetzen dute beren baitan. Anaiburu orokorrak salletar guztioi zuzendutako hitzak gogora ekar ditzakegu: *“Bihotzak gogorarazten digu, hezitzaile gisa, haurren bihotzak mugitzeko ardua dugula. Lehenengo Anaiak bezala, bihotzez lotutako hezitzaileen komunitateak gara”*.
- **Konpromiso bat:** denboran zehar adierazitakoa, urtez urte batzuegandik besteengana igaro dena eta hezitzaile askoren bihotz engaiatuan hezurramitzen jakin duena, proiektua erresalburik gabe dinamizatzea bultzatuz. Anaiburu orokorraren hitzetan, berriz ere: *“Pobreei eta gure ardurapean dauden gazteei eta helduei heziketa gizatiarra eta kristaua eskaintzeko eta egiten ditugun gauza guztietan hezitzaile onak izateko gure deia berritzen duen konpromiso bat.”*
- **Bizitza bat:** ez da bizitza egituratu bat transmititzen. Besteen alde ematen den bizitza da, denboran irauten duena, hasierako protagonistak jada ez egon arren. Ereindako bizitza da, bihotz engaiatuetan fruitu ematen duena eta salletar proiektuaz maitemindutako beste pertsona batzuei nahiz proiektuaren xede direnei bizi berria itzultzen diena. Horregatik, Anaiburu orokorraren hitzetan: *“Salletar misioaren etorkizunean dugun itzaropena adierazten duen bizitza bat, Salleko Joan Bautistaren urratsei nola jarraitu gogora ekartzen diguna, gure bizitzan Jainkoaren deiei erantzunez, Salleko Joan Bautistak bere garaian egin zuen bidetik.”*

Illo horretatik, interesgarri deritzogu urtean zehar gure hiru gai nagusiak lantzea: fedea, senidetasuna eta zerbitzua. Eta hiruhileko bakoitzean horietako bat azpimarratzea, bereziki.

Hala, bada, “La Salle gara” gure goiburua sentituz, salletar garen aldetik La Salleren bitartez Jainkoaren proiektuarekin bat eginez, Salleko Joan Bautistaren heriotzaren 300. urteurrena gogoratu, elkarrekin, hark bezala eta harekin batera, honako hau esan nahi dugu: “Gure bizitzan, Jaunaren borondatea gurtzen dugu gauza guztietan”

HELBURU OROKORRAK

1. Salletar familiarekin eta horren historiarekin afektiboki eta senidetasunez lotuta sentitzea. Gure tokia dela sentitzea, gure etxea, egiaz eta sakonki topo egiteko tokia, hazteko eta konpromisoa hartzeko gunea.
2. Fundatzailearen irudia ezagutzen jarraitzea, eta 300 urte hauetako La Salleren historia azaletik ezagutzea. Misio eta proiektu honen alde bizia eman duten hainbeste Anaia eta salletarren leialtasuna ikustea historia horretan.
3. La Salle besteekiko eta, bereziki, premia handienak dituztenekiko konpromiso pertsonalerako tokia dela jabetzea.
4. Salletar proiektu honetan, bokazioaren giltza eta guri egindako deia aurkitzea, Jainkoak besteei laguntzeko eskainitako dohaina den heinean, bai eta ematen ari garen erantzuna ikustea ere. Salleko Joan Bautistaren aldetik jasotako bokazioarekiko leialtasun-kontzientzia



esnatzea eta sendotzea. Gure obretan sakontzeko aukera hori emango digun bokazio-kultura sustatzea.

5. Transzendentziara irekitzeko toki bat aurkitzea La Sallen, bizitzako Jainkoarekin bat egiteko toki bat.
6. Salletar proiektu honek fundatzailea hil ondoren ere zergatik biziraun duen azpimarratzea, eta gaur egungo historian zer oihartzun dituen ikustea.
7. 300 urte baino gehiago dituen proiektu erakargarria eskaintzen ari garela eta gaur egun ere Anaiak eta sekularrak animatzen eta batzen dituela ikusaraztea erakundetik kanpo.
8. Barrutiaren esparrua gainditzen duen eta salletar misioaren potentzialtasun guztiak garatzera bultzatzen duen familia eta Institutu unibertsal bati lotuta sentitzea.

3.- IKASLEENTZAKO HELBURUAK

1. La Salle nire ikastetxea baino areago doan familia handibat dela sentitzea, eta ni familia horretako kide sentitzea.
2. La Salleren bizitza eta 300 urteko historiako zenbait gorabehera ezagutzea.
3. Ni hazteko tokia izateaz gain, La Salle beste batzuekin batera behar gehien dutenen aldeko konpromisoa hartzeko gunea ere badela ulertzea.

HEZITZAILEENTZAKO HELBURUAK

1. La Salleko zati sentitzea, nire hezkuntza-komunitateko zati eta Sektorean, Barrutian eta munduan La Salle den familia handiaren zati.
2. La Salleren bizitzako une esanguratsuak, gaur gure bizitzara argia ekar dezaketenak, gogoratzea, eta 300 urte hauetako historiaren funtsezko elementuak ezagutzea.
3. Salletar misioaren zati aktibo eta engaiatu sentitzea, guztion artean egunez egun eraikitzen dugun sormenezko leialtasunetik.
4. Salletar hezitzaile gisa dudak bokaziozko izatean sakontzea, Jainkoak egunero egiten dizkidan deiei erantzunez.
5. Salletarren hezteko era kontzientziaz bizitzea, horren ezaugarri eta elementu bereizgarri guztiak naturalki onartuz.

5.- FAMILIENTZAKO HELBURUAK

1. La Salleko hezkuntza-elkarteko kide eta obrako eta La Salle familiako kide sentitzea, nire tokiko ingurua gainditzen duela kontuan hartuz.
2. Salleko Joan Bautistaren irudia eta 300 urte hauetako gertaera garrantzitsu batzuk gehiago ezagutzea.

6.- AZL-ENTZAKO HELBURUAK

1. La Salleko hezkuntza-elkarteko kide eta obrako eta La Salle familiako kide sentitzea, nire tokiko



ingurua gaintzen duela kontuan hartuz.

2. Salleko Joan Bautistaren irudia eta 300 urte hauetako gertaera garrantzitsu batzuk gehiago ezagutzea.

3. La Salleko hezkuntza-elkarteko eta horren Misioko kide gisa berezkoak zaizkion ezaugarri karismatikoak bizitzea bere zereginean.

7.- ANAIENTZAKO ETA ASOZIATUENTZAKO HELBURUAK

1. Norberaren bizitzaren bokazio-zentzuan sakontzea, eta Jainkoak egunero egiten dizkigun deiak berriro aurkitzea.

2. Hezkuntza-elkarteko beste kide batzuei La Salle sentitzen eta beren salletar izatean sakontzen laguntzea.

3. Fedearen lekuko izatea egunez egun.

4. Jasotako misioaren aurrean sormenezko leialtasunaren elementu aktibo izatea, bai eta emateko eta konpromisorako eredu ere, eta identitatearen ezaugarrien transmititzaile izatea.